

# **IZARBIDEAN**

## **2025 URTEKO TXOSTENA**

### **SARRERA:**

Memoria honetan Izarbidean elkarteak 2025. urtean zehar garatu dituen ekimenen narrazio kronologikoa aurkeztuko dugu.

Sukaldaritza-tailerra egiten jarraitzen dugu, eta errezeta berriak egiteko aukera ere izan dugu. Polikiroldegiko igerilekura joaten direnean ere gustura aritzen dira.

Gure lokalean, Topagunean, hainbat arratsalde pasatu ditugu, eskulanak egin, irakurketa saioak edota beste hainbat ekimenetan.

Ekinoterapia saioa, zapatuero egiten den ekintza da, talde txikiak antolatu ditugu eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzak, gutxi gora behera 4 astetik behin joateko aukera izan du.

Besterik gabe, murgildu zaitez gure memorian eta jakizu, existitzen diren muga bakarrak nork bere buruari jartzen dizkionak direla.



## **ZER DA IZARBIDEAN**

Izarbidean irabazi-asmorik gabeko elkarteak da. Elkarrekin hau aniztasun funtzionala duten erabiltzaileen gurasoak sortu zuten. Hain zuzen ere, Markina-Xemein eta Etxebarriko guraso batzuek. Gaur egun, Izarbidean taldea familiartekoei, boluntarioei eta erabiltzaileei osatzen dute.

Gurasoen helburu nagusia haien seme-alaben gizarteratzearen aldeko plana egitea eta gizarte osoari, baina batez ere bi herri horietako herritarrei, bide horretan partaide eta laguntzaile izateko bidea erraztu eta eragile izateko aukera ematea da.

Elkarrekin sortu ondoren, eta euren seme-alaben premien azterketak egin ostean, honako hau ondorioztatu zen: une horretan bi lehentasun zeudela, alde batetik, eguneko zentroa sortzea eta, beste alde batetik, aisialdirako talde bat eratzea eta horretarako beharrezko azpiegitura garatzea (lokala lortu eta atontzea, boluntario-sarea antolatzea...)

Izarbideanek, Markina-Xemein herrian, eguneko zentro bat sortzea bultzatu zuen zenbait instituziotan, esaterako, Foru Aldundiaren Ongizate Batzordearen aurrean. Eguneko zentro hori Gorabide elkarrekin kudeatzen du gaur egun.

2007ko urtarrilean jarri zen martxan Aisialdi-proiektua, Markina-Xemeingo Udalak utzitako Topagune deitu genion lokal batean. Izenak adierazten duen moduan, helburu nagusia ume, gazte eta helduak elkarrekin egoteko gune aproposa izatea da. Nabarmendu beharrezko beste datu bat ere gehitu nahiko genuke, Izarbidean Elkarrekin Onura Publikoa duten elkarrekin erroldan onartua dagoela, 2012ko irailaren 14an argitaratu emandako EHAAren.

## **AISIALDI PROIEKTUAREN BEHARRIZANA ETA HELBURUA**

Markina-Xemein eta inguruan ez dago pertsona horien premiak betetzeko aisialdi-ekintzarik. Hori dela eta, lagun gehiagorekin elkarrekin eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten aisialdi-ekintza da ematen zaiena, beti ere, gizarteratze helburua lehenetsita. Guzti hori bolondres taldearekin eta laguntzaile kontratatatu batekin garatzen da.

Bai Topagunean, bai kalean, hainbat ekintza egiten dituzte: paseoan ibili, margotu, jolastu...

Dena den, jakin badakigu hori ez dela egoera ideala, argi baitago beren dibertsitate funtzionala dela eta, lagunekin eta monitoreekin baino ez izatea ez dela nahiko gertatuena. Herriko hainbat ekintza eta ospakizunetan, zoritxarrez, gure erabiltzaile gehienak baztertua gelditzen dira. Gainera, pandemia egoeran ezin izan dira aurreko urteetan egin diren talde handiko ekintza integratzaile bakarrak garatu: Santa Ageda, San Joan suak...

Azken urteotan, pauso handiak eta sendoak eman dira inklusioa gauzatzeko bidean, baina bidea luzea eta neketsua da eta argi asko ikusten dugu hori gurasoek eta familia kideek ez ezik baita monitore eta laguntzaileek ere. Dena den, gure helburua betetze aldera, saiatuko gara erabiltzaileek ekintza arruntetan eta "normalizatuetan" parte har dezaten, inklusioaren bidean aurrera egiteko.

## ERABILTZAILEAK

Proiektu hau 17 erabiltzailerekin hasi zen, eta hilabete batzuetara 19ra handitu zen. Ia gehienak Markina-Xemeingoak dira, baina badaude inguruko beste herri batzuetakoak ere (Etxebaria).

Adinari dagokionez, proiektua adin guztietara dago zabalik. Gure erabiltzaileak, une honetan 23 eta 67 urte bitartean daude. Horregatik, 2 taldetan banatuta daude, adinaren arabera:

-**Garra-garraka** taldea (23-30urte bitartekoak)

-**Algaraka** taldea (31-67 urte bitartekoak)

Erabiltzaileek diagnostiko desberdinak dituzte. Adibidez: Autismoa, West Sindromea, Garun paralisia, Mikrozealia + Hemiplejia...

Aipatu beharra dago erabiltzaileek Izarbidean elkartera oso gustura etortzen direla, haien aisialdia oso aberasgarria eta gustagarria baita. Izan ere, egunerokoan egiten ez dituzten hainbat ekintza egiten dituzte eta "eurena" sentitzen duten leku bihurtu dute Topagunea.

| Taldeak | Garra-garraka | Algaraka | Guztira |
|---------|---------------|----------|---------|
| Neskak  | 1             | 9        | 10      |
| Mutilak | 4             | 4        | 8       |



## **AISIALDI PROGRAMAN ONARTUA IZATEKO IRIZPIDEAK**

- \*Indarrean dagoen legearen arabera, adimen desgaitasuna onartua izatea.
- \*Elkartean errolatua egotea.
- \*Elkartean dagoen bitartean zunda, injehtagarri eta abarren beharrik ez edukitzea.
- \*Norbere burua eta beste pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketen jokaerarik ez izatea.
- \*Erabiltzailearen premiek monitore eta erabiltzailearen ratoria egokituta egon beharko dute.
- \*Taldearen funtzionamendura edota jarduerara egokitzea.



## **LANGILERIA/BOLUNTARIOAK**

Izarbidean elkartearen Topagunea eta aisialdi-proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Lehenik eta behin, Izarbidean elkarateak ez duelako jende nahikorik kontratatzeke baliabide ekonomikorik, eta, bigarren, baina ez horregatik garrantzia txikiagoa duelako, BOLUNTARIOek ematen diotelako izaera eta hauspoa gure elkarteari.

Boluntarioek esaten dute oso pozik eta gogotsu etortzen direla Izarbideanera, eta ikusi ere, halaxe ikusten da. Hona hemen haiek esandako esaldi batzuk: “pozik bizitzen eta alaitasunez gozatzen erakusten digutelako une askotan, eta talde-giroa ezin hobea delako”, “pertsona oso maitakorrak die, zuk emotezun gitxiaz asko jasoten dozulako eurengandik”, “irakasle paregabeak dira, irribarrea galdu gabe bizitzan aurrera egiten erakusten digutelako”.

### **❖ Boluntarioak lortzeko bidea**

-Prensa: Zenbait egunkariarekin harremanetan izan gara: Hitza, Deia, Correo.

-Kartelak: Markina-Xemein, Ondarroan eta Etxebarriko kaleetan eta zenbait komertziotan kartelak jarri ditugu.

-Ahoz ahoko transmisioa: hau da, boluntarioek eurek, taldeetan, instituzioetan eta abar egiten dituzte komentarioetatik lortzen dugu oihartzun handiena.

-Ikastetxeetan: Aukera izaten dugun bakoitzean ikastetxeetara jotzen dugu, ikasleekin solasaldi bat izan eta jolas batzuen bidez gure elkartea ondo ezagutzeko aukera paregabea da. Horrez gain, eguneroko errealitatearen beste aurpegi bat erakutsi nahi izaten diegu ikastetxe horietako ikasleei.

-Sare sozialak: Instagram eta Facebook bidez ere gure burua ezagutzera ematen ari gara, gure hainbat ekimen argitaratuta jendea elkartera erakartzea helburu hartuta.

### **❖ Boluntario izateko betebeharrak**

18 urte beteta izatea, eta horrelako lan batean parte hartzeko gogoia izatea. 16 urtetik aurrera ere aritu daitezke boluntario lanetan, baina beti ere gurasoen baimen idatziaarekin.

IZARBIDEAN elkaratearekin izango dituen eskubideak eta betebeharrak azaltzen dituen dokumentu bat sinatzea.

### **❖ Boluntarioei harrera**

Boluntario batek izena ematen duenean, lanean hasi aurretik, haiekin biltzen da koordinatzailea. Bilera horretan zera azaltzen zaio:

-Haien eskaintzara moldatzen garela eta lana zein talderekin eta zein ordutegitan egingo duen adosten dugu.

-Lokala erakusten zaio.

-Eskubideak eta betebeharrak fitxa betetzen dute ( Indarrean dagoen Boluntarioen legeari jarraituta).

-Proiektuaren nondik norakoa azaltzen zaie (txostentxo bat ematen zaie).

-Erabiltzaile bakoitzaren informazio garrantzitsuena ematen zaio.

## Formazioa

Boluntarioei lehenengo bileran Aniztasun -funtzionalari buruzko dokumentu bat ematen zaie. Bertan azalduta dago nola funtzionatu behar duten erabiltzaileekin. Beste alde batetik, formazio eskubidea dutela esaten zaie.

Formazio ikastaro horiek, helburu argi bat dute: Lana ahalik eta modu eraginkorrean garatu dezaten laguntza eta aholkuak eskaintzea. Horretarako, Apnabi, Gorabide, Aspace... elkarteak gonbidatu izan ditugu, informazioa eman diezaguten.

Esaterako, ikasturte honetan jaso den formazioa, lehen sorospenak errealitate birtualaren bidez izan da. Topagunean elkartu eta 6 orduko ikastaroa izan zen, eta teoria eta praktika landu ziren. Praktika orduan errealitate birtuala eta panpina erabili ziren. Begiraleen esanetan oso interesgarria eta desberdina izan zen, gustura egin zuten eta aukerarik balego, gehiago sakontzea ere ondo legokeela komentatu zuten.



## **NOLA LORTU INTEGRAZIOA GARATZEA**

Arestian azaldu dugun moduan, elkartearen helburu nagusia erabiltzaileei haien denbora librean, aisialdian, zenbait ekintzatan parte hartzeko aukera ematea da. Horretarako, esparru desberdinetan mugitzen gara. Topagunean egiten dira ekintza gehienak, baina herriko bestelako zerbitzu eta eskaintzak ere erabiltzen ditugu eta ekintza kulturaletan parte hartzen dute. Adibidez: polikiroldegia, zeramika-tailerra...

Erabiltzaileen integrazioa dela eta, esan genezake talde bakoitzarekin lana egiterako orduan, alde desberdinak hartu behar direla kontuan, taldeek ezaugarri propioak dituztelako, horietako bakoitza osatzen duten erabiltzaileen ezaugarri pertsonalen arabera. Hori dela eta, egiten diren ekintzak edo jarduerak oso desberdinak dira talde batetik bestera. Adibidez: Algaraka taldea da autonomia handiena duena eta errazagoa da haiekin ekintza anitzagoak garatzea. Garra-garraka taldeak arazo gehiago edo anitzagoak ditu, haiek dituzten ezintasunak ere handiagoak direlako eta, ondorioz, haiekin egin daitezkeen ekintzak askoz ere baldintzatuago daude.



## **ANTOLAKUNTZA**

Honako hau da erabiltzaileen ordutegia:

### **Garra-garaka taldea:**

-Ekinoterapia 16:00etatik- 18:00etara (zapatuetan)

### **Algaraka taldea:**

-Astelehena, 17:30-20:00 Topagunea edo Paseoa.

-Asteartea, 17:00-19:30 sukaldaritza tailerra Topagunean

-Asteazkena, 17:30-20:00 sukaldaritza tailerra Topagunean.

-Osteguna, 11:00-13:00 Topagunea edo Paseoa eta 17:30etatik-19:00etara Zeramika-tailerra, (Zeramika-tailer horretan ez dute erabiltzaile guztiek parte hartzen. Kanpoko irakasle batekin adostutako ekintza da eta joaten direnean familia bakoitzak ordaintzen du dagokiona).

-Ostirala batean, 17:00-19:00 Topagunea edo paseoa eta hurrengoan 17:00etatik 19:00etara igerilekura.

-Larunbata:

- Ekinoterapia 16:00-18:00. Taldea banatu egiten da: 4 pertsonak osatutako taldeak sortu ditugu eta Algaraka eta Garra-garrakoak joaten dira. Bertan ematen duten denborari ahalik eta probetxu gehien atera diezaieten.



- Hileko lehenengo zapatuetan Eskulan Tailerra 11:00-13:00 izaten dugu topagunean. Boluntarioak Durangotik etortzen dira eta beraiek dinamizatzen dute ekintza. Oso gustura hartzen dute parte.



## **LABURPENA**

Izarbidean elkarrekin abian jarritako aisialdirako proiektu hau jada nahikoa sendotuta dago gizartearen onarpenari dagokionez. Hala ere, boluntarioak egon badauden arren, beti ari gara gehiagoren bila eta ondo zaindu beharreko kontua dela deritzogu, haiek baitira Izarbidean euskarri nagusia.

2024tik 2025 urtera bajaren bat edo beste izan dugu, azken urteetan oso zaila izaten ari da inkorporazio berriak lortzea eta begirale berrien beharra dugu. Hori dela eta, aurten ere Markina-Xemeingo Lea Artibai ikastetxera joko dugu hitzaldi bat eman eta horrela ea gazteak animatu eta gure elkarrekin parte izatera animatzen diren.

Horrez gain, praktikak burutzeko aukera ematen dugu; zein euren ikasketetarako kredituak lortzeko (Unibertsitatetarako), baita monitoretza titulua atera behar dutenentzako zabalik ditugu ateak.

Erabiltzaileak direla eta, lehenago ere aipatu den arren, garrantzitsua da nabarmentzea orain dela 8 urte hartutako erabakia: hiru taldetan banatuta zeuden, baina gazte eta nagusien arteko adin-tartea mantentzen den arren, gazteak ere nagusitu egin dira eta ekintzak elkar banatzen dituzte ehuneko ehunean, horregatik daude orain bi azpitaldetan banatuta.

Talde bakoitzarekin burututako integrazio-lana erabiltzaile bakoitzaren desgaitasunaren arabera da gehien bat, horietako bakoitzak ezaugarri bereizgarriak dituelako eta erabat baldintzatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez.

Erabiltzaileen integrazioa hobetzeko, ekintzak hainbat leku eta esparrutan egin dira. Topagunea erabiltzen da ekintza gehienak burutzeko, baina bestelako tokietara ere joaten gara.



## **2025ean BURUTUTAKO EKINTZAK**

**Bestelako ekintzak.**

- **Urtarrilak 5, ERREGE KABALGATA:**

Beste urte batzuetan bezala, aurten ere Errege kabalgatan parte hartzeko aukera izan dugu. Pajez jantzi eta erregen laguntzaile lanetan aritu ginen. Kalejiran ibili eta umetxoei gozokiak banatzeko aukera izan genuen.

- **Otsailak 4, SANTA AGEDA:**

Aurten berriz, baserritarrez jantzita plaza barripean geratu ginen eta herriko beste elkarrekin batera irten ginen kantura. Hotzari aurre egin eta Markina osotik atera ginen kantatzen, musika jotzen, bertsoak botatzen eta abar. Bukatzeko kopau bat izan genuen. Arratsalde paregabea igaro genuen.



- **Ekainak 9, BEKOBENTA :**

Ikasturte amaieran Bekobenta eskolatik dei bat jaso genuen, bertako ikasleek aniztasunaren munduan murgilduta ibili omen dira eta proiektu desberdinak burutzen aritu zirela esanez. Beraien proiektuari bukaera emateko gure erailtzaileak ezagutu eta harremanak estutu nahi zituzten beraz ostegun goiz batean elkartu ginen Topagunean, bertan elkar ezagutu, kontu kontari ibili eta ekintza desberdinak egin zituzten elkarrekin, besteak beste marrazkiak egin, partxis partida batzuk edo ta karta joko bat. Gure erabiltzaileak oso gustura egon ziren eta lagun berriak egiteko aukera ederra izan zen.

- **UZTAILA:**

Udako hilabete honetan antolakuntza birmoldatu eta udako ordutegi berezi bat antolatzen dugu. Gure erabiltzaile asko oporretan daude baina beste hainbeste oraindik goizez lanean ari dira, beraz hori ikusirik, bi talde antolatu eta arratsaldeetan 16:00-20:00ra txangoak egiteko aprobetxatzen dugu.

Eguraldiak lagundu digun guztietan hondartzara abiatu gara, baina horrez gain mendi txangoren bat, inguruko herriak bisitatu eta ondo pasatzeko erabili ditugu arratsaldeak.



- **UZTAILAK 12, TAMBORRADA:**

Herriko jaiak izaten ditugu eta ohitura den moduan tanbor hotzez bete ziren herriko kaleak.

Astebetetz entseguetan aritu ondoren heldu zen egun handia, gerrikoa estutu eta makilak gogoz astindu genituen. Herriko hainbat elkarte eta jenderekin ondo pasatzeko aukera paregabea izaten da.

- **URRIAK 11, AZOKA**

Erabiltzaile eta gurasoak izan ziren saltzaile lanetan postuan. Topagunean, arte eskolan eta eskulan tailerrean egindako eskulanak saldu ziren . Gauza asko saldu ziren, baina horrez gain, eta garrantzitsuena dudarik gabe hau da: zein ondo pasatzen duten erabiltzaileek eurek egindako gauzak saltzen eta jendeari azalpenak ematen. Aipatzekoa da, baita, gabonetako loteria atera dugula eta loteria ere saldu zela azoka egunean. Egun horri begira izaten dugun helburu nagusia primeran bete zen; hau da, Izarbideaneko erabiltzaileak egun horretan beste edozein herritarren moduan herriko ekintza esanguratsu baten parte izatea.



- **Abenduak 16, Askaria Berakruz eskolan:**

Orain dela urte batzuk hasi ginen ekintza hau burutzen, Berakruz eskolak antolatzen du eta DBH-ko ikasleak izaten dira anfitrioi. Beraz, DBHko ikasle, irakasle eta guk bat egiten dugu arratsalde paregabe bat ospatzeko.

Askari ederra ,musika, dantza eta jai giroa ez dira falta, elkar ezagutzeko modu ederra da eta gure elkartearen berri emateko modu bat ere bada. Datorren urtean berriz errepikatzeko gogotsu gaude.

- **Abenduak 19, Lagun Ezkutua:**

Urteari bukaera emateko ordua ere iritsi da eta nola ez, guk opari eta jai giroan eman diogu. Hilabete batzuk lehenago dena prestatzen eta antolatzen dugu, denon artean zozketa egin eta bakoitzak nori oparia egin antolatuz hasten gara, ondoren askari ederra prestatu eta egunean bertan topera ospatu. Topagunean elkartu ginen eta kontu kontari ibili, argazkiak atera eta tripa bete ondoren opari banaketa burutu zen.

- **DAGAZ:**

Hilean behin burutzen den ekintza da, Uhagon kultura gunean batzen gara eta dantza irakasle batek ematen digu klasea. Arrakasta handia duen ekintza da, dantza egiteaz gain talde lana bultzatzen duelako eta joko ezberdin askoren bitartez izugarri ikasteko aukera izaten delako.



- **ESKULAN TAILERRA:**

Ekintza hau duela hiru urte hasi zen eta oso harrera ona izan du. Gogo handiz hartzen dute parte. Normalean hilean behin egiten dugu (hileko lehenengo zapatuan) eta gehienetan neskek bakarrik parte hartzen duten arren, aurtan mutilen bat edo beste ere animatu da.

Tailerra, Durangotik datozen emakumez osaturiko boluntario talde batek ematen du, eta izugarrizko eskulanak egiten dituzte beraiekin. Ahal den bitartean mantenduko den tailerra da.



- **BBK ART(e)gileak:**

Proiektu berri bat da eta helburua sorkuntza artistikorako testuinguruak sortzea da, trukea, sormena, esperimentazioa, irudimena eta berrikuntza sustatuz.

Gure kasuan Udaletik lortu genuen proiektu honen parte izatea eta 12 saio burutu ahal izan ditugu Irailetik Abendura. Irene de Madrazo izan da gure Irakaslea. Bera akuarelista da, beraz, akuarelaren munduan murgiltzen lagundu digu. Erronka bat izan da guztiontzat, Irenek lehen aldiz egiten zuelako lan aniztasuna dutenekin, eta guretzako ere lehen aldia zen akuarelaren munduan.

Klaseak dibertigarriak izan dira, izan ere Irene musikaria ere bada eta musika apur bat ikasteko aukera ere izan da, musika eta akuarela fusionatuz.

Lan oso politak atera dira eta Otsailean Bilbon bertan esposizio batean aurkezteko aukera izango dugu.

Gure erabiltzaileentzako erronka bat izan den arren, harro eta pozik gaintitu dituzte pauso guztiak. Ahalegin guztiak egingo ditugu horrelako proiektu gehiagoren parte izan ahal izateko.



## **WEBGUNEA eta SARE SOZIALAK**

2010eko uztailean jarri genuen martxan gure webgunea. Hainbat helburu ditu webgune honek, baina denen artean garrantzitsuenak, erabiltzaileei, haien familietako kideei, herrikoei, eta oro har, gutaz zerbait jakiteko gogoak duten guztiei informazioa helaraztea da.

Bizi garen garaia kontutan hartuta, hausnartu eta Interneten presentzia izatea ezinbestekoa dela ohartuta, gure berri emateko ahalegina egin behar genuela erabaki genuen.

Horregatik, webguneaz gain, Facebook eta Instagram sare sozialetan ere profilak sortu ditugu; izan ere, zenbait erabiltzailek profil propioak dituzte sare horietan eta Izarbideanek ere berea izateko eskaera egin zuten.

Teknologia berrietan egin dugun murgilketaren inguruan balorazioa oso positiboa da; izan ere, erabiltzaileek bereziki estimatzen dute haien berri ematea eta gustuko dute irudi eta testu horietako protagonista izatea. Gainera, jendea elkartearen berri emateko bide arina eta zuzena da.

- [www.izarbidean.org](http://www.izarbidean.org)
- Facebook-Izarbidean
- Instagram-Izarbidean



**LAGUNTZAILEAK:**

Markina-Xemeingo udala

Etxebarriako udala

Ziortza-Bolibarko udala

La Caixa

Cikautxo S. Coop.

Eika S. Coop.

Lagun Aro

Fagor Arrasate S. Coop

Danobat Group

Hezilan

Ziortza Bolibarko gazteak

Lea Artibai Ikastetxea

Nemak

Bizkaiko Foru Aldundia

**Eskerrik asko!!!!**

**Nº registro** AS/B/09819/2002

**Nombre de la entidad**

IZARBIDEAN Aniztasun Funtzionala dute Pertsonen Aldeko Elkartea / Asociación a favor de las personas con diversidad funcional

## **PLAN GENERAL DE CONTABILIDAD**

### **BALANCE DE SITUACIÓN Y CUENTA DE RESULTADOS**

#### **Modelo Abreviado**

---

**MODELOS ABREVIADOS DE CUENTAS ANUALES**  
**BALANCE DE SITUACIÓN CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO CERRADO EL 31/ 12 /2025**

| Nº DE CUENTAS                                                                                                                   | ACTIVO                                                                 | NOTAS<br>MEMORIA | 2025             | 2024             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|------------------|------------------|------------------|
|                                                                                                                                 | <b>A) ACTIVO NO CORRIENTE</b>                                          |                  |                  |                  |
| 20,(280),(2830),(290)                                                                                                           | <b>I. Inmovilizado intangible</b>                                      |                  |                  |                  |
| 240,241,242,243,244,249,(299)                                                                                                   | <b>II. Bienes del Patrimonio Histórico</b>                             |                  |                  |                  |
| 21,(281),(2831),(291),23                                                                                                        | <b>III. Inmovilizado material</b>                                      |                  |                  |                  |
| 22,(282),(2832),(292)                                                                                                           | <b>IV. Inversiones inmobiliarias</b>                                   |                  |                  |                  |
| 2503,2504,2513,2514,2523,2524,(2593),(2594),(293),(2943),(2944),(2953),(2954)                                                   | <b>V. Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo</b> |                  |                  |                  |
| 2505,2515,2525,(2595),260,261,262,263,264,265,267,268,(269),27,(2945),(2955),(297),(298)                                        | <b>VI. Inversiones financieras a largo plazo</b>                       |                  |                  |                  |
| 474                                                                                                                             | <b>VII. Activos por impuesto diferido</b>                              |                  |                  |                  |
|                                                                                                                                 |                                                                        |                  |                  |                  |
|                                                                                                                                 | <b>B) ACTIVO CORRIENTE</b>                                             |                  | <b>29.422,59</b> | <b>27.240,39</b> |
| 580,581,582,583,584,(599)                                                                                                       | <b>I. Activos no corrientes mantenidos para la venta</b>               |                  |                  |                  |
| 30,31,32,33,34,35,36,(39),407                                                                                                   | <b>II. Existencias</b>                                                 |                  |                  |                  |
| 447,448,(495)                                                                                                                   | <b>III. Usuarios y otros deudores de la actividad propia</b>           |                  |                  |                  |
| 430,431,432,433,434,435,436,(437),(490),(493),440,441,446,449,460,464,470,471,472,558,544                                       | <b>IV. Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar</b>               |                  |                  |                  |
| 5303,5304,5313,5314,5323,5324,5333,5334,5343,5344,5353,5354,(5393),(5394),5523,5524,(593),(5943),(5944),(5953),(5954)           | <b>V. Inversiones en entidades del grupo y asociadas a corto plazo</b> |                  |                  |                  |
| 5305,5315,5325,5335,5345,5355,(5395),540,541,542,543,545,546,547,548,(549),551,5525,5590,5593,565,566,(5945),(5955),(597),(598) | <b>VI. Inversiones financieras a corto plazo</b>                       |                  |                  |                  |
| 480,567                                                                                                                         | <b>VII. Periodificaciones a corto plazo</b>                            |                  |                  |                  |
| 57                                                                                                                              | <b>VIII. Efectivo y otros activos líquidos equivalentes</b>            |                  | <b>29.422,59</b> | <b>27.240,39</b> |
|                                                                                                                                 | <b>TOTAL ACTIVO (A+B)</b>                                              |                  | <b>29.422,59</b> | <b>27.240,39</b> |

| Nº DE CUENTAS                                     | PATRIMONIO NETO Y PASIVO                                             | NOTAS<br>MEMORIA | 2025             | 2024             |
|---------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|------------------|------------------|------------------|
|                                                   | <b>A) PATRIMONIO NETO</b>                                            |                  | <b>28.271,59</b> | <b>26.669,52</b> |
|                                                   | <b>A-1) Fondos propios</b>                                           |                  | <b>28.271,59</b> | <b>26.669,52</b> |
|                                                   | <b>I. Dotación Fundacional / Fondo social</b>                        |                  |                  |                  |
| 100,101                                           | 1. Dotación Fundacional / Fondo social                               |                  |                  |                  |
| (103),(104)                                       | 2. (Dotación Fundacional no exigida / Fondo social no exigido)       |                  |                  |                  |
| 111,113,114,115                                   | <b>II. Reservas</b>                                                  |                  |                  |                  |
| 120, (121)                                        | <b>III. Excedentes de ejercicios anteriores (*)</b>                  |                  | 26.669,52        | 36.343,62        |
| 129                                               | <b>IV. Excedente del ejercicio (*)</b>                               |                  | 1.602,07         | -9.674,10        |
| 133,1340,137                                      | <b>A-2) Ajustes por cambios de valor (*)</b>                         |                  |                  |                  |
| 130, 131, 132                                     | <b>A-3) Subvenciones, donaciones y legados recibidos</b>             |                  |                  |                  |
|                                                   |                                                                      |                  |                  |                  |
|                                                   | <b>B) PASIVO NO CORRIENTE</b>                                        |                  |                  |                  |
| 14                                                | <b>I. Provisiones a largo plazo</b>                                  |                  |                  |                  |
|                                                   | <b>II. Deudas a largo plazo</b>                                      |                  |                  |                  |
| 1605, 170                                         | 1. Deudas con entidades de crédito                                   |                  |                  |                  |
| 1625, 174                                         | 2. Acreedores por arrendamiento financiero                           |                  |                  |                  |
| 1615,1635,171,172,173,175,176,177,179,180,185,189 | 3. Otras deudas a largo plazo                                        |                  |                  |                  |
| 1603,1604,1613,1614,1623,1624,1633,1634           | <b>III. Deudas con entidades del grupo y asociadas a largo plazo</b> |                  |                  |                  |
| 479                                               | <b>IV. Pasivos por impuesto diferido</b>                             |                  |                  |                  |
| 181                                               | <b>V. Periodificaciones a largo plazo</b>                            |                  |                  |                  |

| Nº DE CUENTAS                                                                                             | PATRIMONIO NETO Y PASIVO                                                        | NOTAS<br>MEMORIA | 2025             | 2024             |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|------------------|------------------|------------------|
|                                                                                                           | <b>C) PASIVO CORRIENTE</b>                                                      |                  | <b>1.151,00</b>  | <b>570,87</b>    |
| 585,586,587,588,589                                                                                       | <b>I. Pasivos vinculados con activos no corrientes mantenidos para la venta</b> |                  |                  |                  |
| 499, 529                                                                                                  | <b>II. Provisiones a corto plazo</b>                                            |                  |                  |                  |
|                                                                                                           | <b>III. Deudas a corto plazo</b>                                                |                  |                  |                  |
| 5105,520,527                                                                                              | 1. Deudas con entidades de crédito                                              |                  |                  |                  |
| 5125,524                                                                                                  | 2. Acreedores por arrendamiento financiero                                      |                  |                  |                  |
| 500,505,506,509,5115,5135,5145,521,522,523,525,528,551,5525,5530,5532,555,5565,5566,5595,5598,560,561,569 | 3. Otras deudas a corto plazo                                                   |                  |                  |                  |
| 5103,5104,5113,5114,5123,5124,5133,5134,5143, 5144,5523,5524,5563,5564                                    | <b>IV. Deudas con entidades del grupo y asociadas a corto plazo</b>             |                  |                  |                  |
| 412                                                                                                       | <b>V. Beneficiarios-Acreedores</b>                                              |                  |                  |                  |
|                                                                                                           | <b>VI. Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar</b>                       |                  | <b>1.151,00</b>  | <b>570,87</b>    |
| 400,401,403,404,405,(406)                                                                                 | 1. Proveedores                                                                  |                  |                  |                  |
| 410,411,419,438,465,466,475,476,477                                                                       | 2. Otros acreedores                                                             |                  | 1.151,00         | 570,87           |
| 485, 568                                                                                                  | <b>VII. Periodificaciones a corto plazo</b>                                     |                  |                  |                  |
|                                                                                                           | <b>TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO (A+B+C)</b>                                   |                  | <b>29.422,59</b> | <b>27.240,39</b> |

(\*) Su signo puede ser positivo o negativo

**MODELOS ABREVIADOS DE CUENTAS ANUALES**  
**CUENTA DE RESULTADOS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO CERRADO EL 31/ 12 /2025**

| Nº DE CUENTAS                                                                                                                       |                                                                                                 | NOTAS<br>MEMORIA | 2025              | 2024              |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|-------------------|-------------------|
|                                                                                                                                     | <b>A) Excedente del ejercicio</b>                                                               |                  |                   |                   |
|                                                                                                                                     | <b>1. Ingresos de la actividad propia</b>                                                       |                  | <b>29.890,07</b>  | <b>23.300,28</b>  |
| 720                                                                                                                                 | a) Cuotas de asociados y afiliados                                                              |                  | 2.890,00          | 2.880,00          |
| 721                                                                                                                                 | b) Aportaciones de usuarios                                                                     |                  | 2.380,00          | 600,00            |
| 722, 723                                                                                                                            | c) Ingresos de promociones, patrocinadores y colaboraciones                                     |                  | 3.445,00          | 3.808,30          |
| 740,747,748                                                                                                                         | d) Subvenciones, donaciones y legados imputados al excedente del ejercicio                      |                  | 20.170,41         | 16.927,41         |
| 728                                                                                                                                 | e) Reintegro de ayudas y asignaciones                                                           |                  | 1.004,66          | -915,43           |
| 700,701,702,703,704,705,(706),(708),(709)                                                                                           | <b>2. Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil</b>                                     |                  |                   |                   |
|                                                                                                                                     | <b>3. Gastos por ayudas y otros</b>                                                             |                  |                   |                   |
| (650)                                                                                                                               | a) Ayudas monetarias                                                                            |                  |                   |                   |
| (651)                                                                                                                               | b) Ayudas no monetarias                                                                         |                  |                   |                   |
| (653),(654)                                                                                                                         | c) Gastos por colaboraciones y del órgano de gobierno                                           |                  |                   |                   |
| (658)                                                                                                                               | d) Reintegro de subvenciones, donaciones y legados                                              |                  |                   |                   |
| (6930),71*,7930                                                                                                                     | <b>4. Variación de existencias de productos terminados y en curso de fabricación</b>            |                  |                   |                   |
| 73                                                                                                                                  | <b>5. Trabajos realizados por la entidad para su activo</b>                                     |                  |                   |                   |
| (600),(601),<br>(602),6060,6061,6062,6080,6081,6082,6090,609<br>1,6092,610*,611*,612*,(607),(6931),(6932),<br>(6933),7931,7932,7933 | <b>6. Aprovisionamientos</b>                                                                    |                  | <b>-697,00</b>    | <b>-1.403,64</b>  |
| 75                                                                                                                                  | <b>7. Otros ingresos de la actividad</b>                                                        |                  |                   |                   |
| (640),(641),(642),(643),(644),(649),7950                                                                                            | <b>8. Gastos de personal</b>                                                                    |                  | <b>-12.420,00</b> | <b>-13.114,04</b> |
| (62),(631),(634),636,639,(655),(694),<br>(695),794,7954,(656),(659)                                                                 | <b>9. Otros gastos de la actividad</b>                                                          |                  | <b>-15.171,00</b> | <b>-18.456,70</b> |
| (68)                                                                                                                                | <b>10. Amortización del inmovilizado</b>                                                        |                  |                   |                   |
| 745,746                                                                                                                             | <b>11. Subvenciones, donaciones y legados de capital traspasados al excedente del ejercicio</b> |                  |                   |                   |

| Nº DE CUENTAS                                                                   |                                                                                                                         | NOTAS<br>MEMORIA | 2025            | 2024             |
|---------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|-----------------|------------------|
| 7951,7952,7955,7956                                                             | <b>12. Exceso de provisiones</b>                                                                                        |                  |                 |                  |
| (690),(691),(692),770,771,772,790,791,792,(670),<br>(671),(672)                 | <b>13. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado</b>                                                     |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>A.1) EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)</b>                                                   |                  | <b>1.602,07</b> | <b>-9.674,10</b> |
| 760,761,762,767,769                                                             | <b>14. Ingresos financieros</b>                                                                                         |                  |                 |                  |
| (660),(661),(662),(664),(665),(669)                                             | <b>15. Gastos financieros</b>                                                                                           |                  |                 |                  |
| (663),763                                                                       | <b>16. Variación de valor razonable en instrumentos financieros</b>                                                     |                  |                 |                  |
| (668),768                                                                       | <b>17. Diferencias de cambio</b>                                                                                        |                  |                 |                  |
| (666),(667),(673),(675),(696),(697),(698),<br>(699),766,773,775,796,797,798,799 | <b>18. Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos financieros</b>                                          |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>A.2) EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES FINANCIERAS (14+15+16+17+18)</b>                                                   |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>A.3) EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)</b>                                                                      |                  | <b>1.602,07</b> | <b>-9.674,10</b> |
| (6300)*,6301*,(633),638                                                         | <b>19. Impuestos sobre beneficios</b>                                                                                   |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>A.4) Variación de patrimonio neto reconocida en el excedente del ejercicio (A.3+19)</b>                              |                  | <b>1.602,07</b> | <b>-9.674,10</b> |
|                                                                                 | <b>B) Ingresos y gastos imputados directamente al patrimonio neto</b>                                                   |                  |                 |                  |
| 940,9420                                                                        | <b>1. Subvenciones recibidas</b>                                                                                        |                  |                 |                  |
| 941,9421                                                                        | <b>2. Donaciones y legados recibidos</b>                                                                                |                  |                 |                  |
| (800),(89),900,991,992,(810),910,(85),95                                        | <b>3. Otros ingresos y gastos</b>                                                                                       |                  |                 |                  |
| (8300)*,8301*,(833),834,835,838                                                 | <b>4. Efecto impositivo</b>                                                                                             |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>B.1) Variación de patrimonio neto por ingresos y gastos reconocidos directamente en el patrimonio neto (1+2+3+4)</b> |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>C) Reclasificaciones al excedente del ejercicio</b>                                                                  |                  |                 |                  |
| (840),(8420)                                                                    | <b>1. Subvenciones recibidas</b>                                                                                        |                  |                 |                  |
| (841),(8421)                                                                    | <b>2. Donaciones y legados recibidos</b>                                                                                |                  |                 |                  |
| (802),902,993,994,(812),912                                                     | <b>3. Otros ingresos y gastos</b>                                                                                       |                  |                 |                  |
| 8301*,(836),(837)                                                               | <b>4. Efecto impositivo</b>                                                                                             |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>C.1) Variación de patrimonio neto por reclasificaciones al excedente del ejercicio (1+2+3+4)</b>                     |                  |                 |                  |
|                                                                                 | <b>D) Variaciones de patrimonio neto por ingresos y gastos imputados directamente al patrimonio neto (B.1+C.1)</b>      |                  |                 |                  |

| Nº DE CUENTAS |                                                                                    | NOTAS<br>MEMORIA | 2025     | 2024      |
|---------------|------------------------------------------------------------------------------------|------------------|----------|-----------|
|               | E) Ajustes por cambios de criterio                                                 |                  |          |           |
|               | F) Ajustes por errores                                                             |                  |          |           |
|               | G) Variaciones en la dotación fundacional o fondo social                           |                  |          |           |
|               | H) Otras variaciones                                                               |                  |          |           |
|               | I) RESULTADO TOTAL, VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO (A.4 +D+E+F+G+H) |                  | 1.602,07 | -9.674,10 |

\* Su signo puede ser positivo o negativo